



eskola

UNITATE DIDAKTIKOA

**ESKOLA
EKO-FEMINISTA
ERAIKI DEZAGUN!**

ESKER ONAK

«Eskola ekofeminista eraiki dezagun» izeneko unitate didaktiko honen edukia testu hauetan oinarrituta dago:

Sarai Fariñas i Ausina Maleta *pedagogiko feminista* (2021) argitalpena **Mayte Fornes** eta **Nerea Álvarez**en laguntzarekin eta **Garuarekin** elkarlanean, eta **Yayo Herreroren** *Ecofeminismos para el buen vivir: vivir y trabajar en un mundo justo y sostenible* izeneko unitate didaktikoan.

Lerro hauen bitartez, **STEILASeko Idazkaritza Feministaren** izenean, eskerrak eman nahi dizkiegu egile horiei praktika eta teoria ekofeministarekiko duten konpromisoagatik eta gure gizartearen izaera patriarkal eta kapitalistaren etengabeko salaketagatik.

eskola



ESKOLA EKO FEMINISTA ERAIKI DEZAGUN!

SARRERA

STEILASen Idazkaritza Feministatik «Eskola ekofeminista eraiki dezagun» izeneko unitate didaktikoa proposatzen dizuegu aurtengo martxoaren 8rako. Material honekin, zenbait gako eskaini nahi dizkizuegu, ikasleekin proposamen batzuk landu ditzazuen, trantsizio ekologiko bidezko eta feminista ikastetxeetan sustatzeko. Ekofeminismoa ekologismoaren eta feminismoaren arteko elkarrizketa da, pentsamenduaren eta ekintzaren bi korrante horiek bat egin baitute azken hamarkadetan.

Ekofeminismoak agerian uzten du egungo sistema kapitalista patriarkalak agortu arte ustiatzen dituela sistematikoki nola baliabide naturalak, hala lan erreproduktiboa –batez ere emakumeek egina eta doan–. Ikuspegi ekofeministak, beraz, behartu egiten gaitu antolaketa soziala eta ekoizteko eta kontsumitzeko dugun ereduaren kontraesanak berraztertzerara. Hala, modu bidezkoagoak eta orekatuagoak proposatzen dizkigu planetarekin eta pertsonen artean harremanak izateko.

Basoen eta biodibertsitatearen suntsipenak, uren kutsadurak, teknoindustrialismoaren produktu toxikoek, animaliei emandako tratuak eta antzeko gaiak gero eta pertsona gehiagori sortzen diete kezka, gazteenei ere bai. OME eta NBE bezalako erakundeek emandako datuak kezkarriak dira oso: kalkuluen arabera, 250.000 pertsona inguru hiltzen dira urtero larrialdi klimatikoaren ondorioz, eta, aurreikuspenen arabera, 50-200 milioi errefuxiatu klimatiko izango dira 2050erako. Euskal ikasleek modu masiboan bat egin zuten 2019ko irailean klimaren munduko grebarekin, krisi ekologikoak eta larrialdi klimatikoak gure bizitzak baldintzatzen dituztela salatuz. «Ez dugu B planetarik» izan zen gehien entzundako kontsignetako bat.

Has gaitezen ikasgeletatik alternatiba errealista eta bidezko bat zehazten, genero-berdintasuna eta biztanleriaren zati handi bat pobretzearen aurkako borroka barne hartuta. Planeta salbatzeko keinu txikiez harantz joz (birziklatu, berrerabili...), ezer gutxirako balio baitute gure kontsumoa murrizten ez badugu. Unitate didaktiko honekin hausnarketa piztu nahi dugu gure produkzio-eredua zalantzan jartzeko, pertsonak, bizimoduak eta natura suntsitzen baititu. Helburua da aurrera egitea ikastetxe ekofeministak sortzeko, eta gure errealitateaz jabetzea, izaki eko-dependenteak garen aldetik: bizirauteko behar dugun guztia naturatik ateratzen dugu (elikagaiak, ura, mineralak, energia fosila, elektrikoa, etab.), bai eta bizitzan behar ditugun zainketetatik ere. Izaki erabat interdependenteak gara, fantasia indibidualistek eta patriarkalek gure zaugarritasuna ezkutatu arren, eta bizitzari eusten dioten zaintza eta lanak ikusezin bihurtu eta gutxietsi arren.

Batzuek feminista sufragistek XX. mende hasieran egindako borrokekin alderatzen dituzte klima-aldaketaren aurkako aktibisten borroka. Zabalduko ahal da ekologismoa, kontzientzia feminista hezkuntza-komunitatean zabaltzeko den bezala! Unitate didaktiko honekin, gure harri-koskorra jarri nahi dugu mundu bizigarriago bat eraikitzeko.



Abiapuntua

HELURU OROKORRA

Ekofeminismotik guztion etxea eraikitzen.

HELURU DIDAKTIKOAK

- Ezagutza sortzea gizakiek naturarekiko duten mendekotasunari buruz.
- Ezagutza eta balioak sortzea zainketek giza bizitzari eusteko duten garrantziari buruz.
- Ingurune naturalarekin errespetuzkoak diren jarrerak eta portaerak sustatzea ikasleen artean.
- Hausnartzea salgaien zirkulazio aske eta pertsonen zirkulazioaren kontrolak dakarren paradoxari buruz.
- Ikastetxeetan baliabide didaktiko errazak izatea ekofeminismoak lantzeko.



OINARRIZKO GAITASUNAK


- Ekofeminismoa kontzeptua eta haren balioa ezagutzera ematea.
- Ingurune natural eta sozialekiko errespetua sustatzea.
- Ikasleen artean kontzientzia kritikoa sortzea.
- Biodibertsitatearen, naturaren eta zainketen garrantziaz kontzientziaztea.

EDUKIAK

- Zer da ekofeminismoa?
- Ekofeminismoaren bi zutabeak: ekodependentzia eta interdependentzia.
- Nola gauzatu ekofeminismoa?
- Ekofeminismoaren baieztapenak.
- Naturak mugak ditu.
- Gure gorputzek, bizitzaren aldi guztietan, zainketak behar dituzte.
- Emakumeak arduratu dira bizitzari eusten dion lan ikusezin guztia egiteaz.
- Ekonomia konbentzionalak nahasi egin ditu balio eta prezio kontzeptuak.
- Ekonomia konbentzionalak produkzio esaten dio bonbak egiteari eta, orobat, letxugak landatzeari.
- Hazi naturalak gorde behar dira.
- Herrialde aberastuen hazkunde ekonomikoa ez da oinarritu behar herrialde pobretuen izaeran eta lan-baldintzetan.
- Zor ekologikoa.
- Zainketa-arloko zorra.



Jarduerak



AURKEZPENA ETA MOTIBAZIOA

Haur eta Lehen Hezkuntza,
DBH eta Batxilergoa

Materialak: STEILASEk aurkeztutako kartela, folioak, bolalumak, pinturak eta ikus-entzunezko baliabideak.

Iraupena: saio bat.

Elkartzeko modua: banaka, talde txikietan eta talde handian.

GARAPENA:

- 1 Irakasleak ageriko leku batean jarriko du STEILASEn kartela.
- 2 Talde txikietan banatuko ditugu ikasleak, eta hamabost minutu emango dizkiegu taldeei kartelaren esanahiari buruz eztabaida dezaten.
- 3 Esanahiak bateratuko dira eta honako galdera hauei buruz hitz egingo da. Beharrezkoa izanez gero, galderak adinera egokitu beharko dira:
 - Zer irudi ikusten duzue kartelean? Zer esan nahi du bertan agertzen den irudiak?
 - Zer adierazten du kartelaren leloak?
 - Zer da ekologismoa?
 - Zer da ekofeminismoa? Zuen ustez, behar adina hitz egiten al da ekofeminismoaz?
 - Zer ondorio ditu kutsadurak?
 - Nola zaintzen dugu planeta?
 - Zuen ustez, nork pairatzen du zehatzago edo zorrotzago gure baliabideen kudeaketa txarra?
 - Zer ondorio ditu?
 - Zein da zuen konpromisoa gai honi dagokionez? Eta zenbateraino kezkatzen zaituzte?
 - Kartela egokia al da egun honetarako? Zertarako da egokia?
 - Egunduek aldarrikapenak egiten jarraitu behar dugu? Zertarako?
 - Zertan jarri duzue arreta ondorio hauek ateratzeko?





- 4 Saioari amaiera emateko, irakasleak ikasleei eskatuko die ekofeminismoaren ondoko definizioa irakurtzeko, hitz egin dugunaren berri emateko eta iritziak alderatzeko.

ZER DA EKO-FEMINISMOA?

Ekofeminismoa pentsamendu-korronte bat eta praktika politiko bat da, bizirik irauteko naturaren eta beste pertsona batzuen mende gaudela gogorarazten diguna. Galdera honi hobeto erantzuteko, hitza xehatuko dugu. «Eko» «oikos» hitz grekotik dator, eta etxearekin edo ingurumenarekin zerikusia duena esan nahi du. «Feminismoa» mugimendu sozial eta politiko bat da, eta bizitzako esparru guztietan gizonen eta emakumeen arteko eskubideetan berdintasuna lortzea du helburu.

Feminismoak historian zehar borroka egin du emakumeen boto-eskubidea aitortzeko, soldaten berdintasuna lortzeko, indarkeriarik gabeko bizitza izateko, hezkuntzarako sarbidea izateko, zainketa-lana aitortzeko, emakumeak eta neskatok sexu-jazarpenetik eta bortxaketetatik babesteko, LGTBIQ+ eskubideen alde, klase-zapalkuntzaren aurka eta arrazakeriaren aurka. Terminoa Françoise d'Eaubonne (1920- 2005) frantziar ekofeministak sortu zuen. 1974an, lehen aldiz aipatu zuen ekofeminismoa *Le Feminisme ou la mort* liburuan. Françoise d'Eaubonnek *Moviment Ecologisme-Feminisme* sortu zuen 1978an, eta oihartzun handia izan zuen Estatu Batuetan. 50 lan baino gehiago idatzi zituen, besteak beste, eleberriak, saiakerak, biografiak eta olerkiak. Hitzaren bi hanka horiek kontuan hartuta, esango genuke ekofeminismoa dela natura zainduz genero-berdintasuna lortzeko modua.





2 MUNDUA ALDERANTZIZ

Haur eta Lehen Hezkuntza,
DBH eta Batxilergoa

Egokitu
adinaren
arabera

Materialak: txartelen packa (l. eranskina)

Iraupena: saio bat.

Elkartzeko modua: 3 talde.

GARAPENA:

- 1 Hiru taldeak bereizita jarriko dira ikasgelan.
- 2 Txartelen pack bat emango diogu talde bakoitzari (31. or.):
 - A taldea: txartel laranja
 - B taldea: txartel berdea
 - C taldea: txartel morea

A taldea: txartelak ordenatu behar ditu, hobeto ordaindutako jarduerekin hasi (merkatuan ordainsari handiagoa) eta okerrago ordaindutakoekin amaituta (ordainsari txikiagoa)..



B taldea: txartelak ordenatu behar ditu, naturari kalte gehien egiten dioten jarduerekin hasi eta naturari kalte gutxien egiten dioten jarduerekin amaituta..





C taldea: txartelak ordenatu behar ditu, bizitza duina izaten gutxien laguntzen duten jarduerekin hasi eta gehien laguntzen duten jarduerekin amaituta (etxea izatea, ondo elikatuta egotea, maitasuna eta zaintza izatea, zure bizimoduak natura eta gainerako pertsonak errespetatzea)..



- 3 **Sakontzeko:** txartelak ordenatu ondoren, eskatuko diegu eskuinerantz mugitzeko haien ustez gehienbat emakumeek egiten dituzten jarduerak, baina lehen zuten ordena bertikala mugitu gabe. Eskuinerantz pixka bat mugitu behar dute, besterik ez.
- 4 Txartelak ordenatu ondoren (eta jarduera feminizatuenak eskuinerantz mugituta daudela), guztiei azalduko diegu talde bakoitzak zuen egitekoa, eta eskatuko diegu ikasgelatik buelta bat emateko, gainerako taldeek nola ordenatu dituzten ikusteko. Galdera hauek egingo dizkiegu:
 - Zein dira ordainsaririk handiena duten jarduerak? Naturari kalte gehien egiten dioten berberak al dira?
 - Bizitza duina izaten gutxien laguntzen duten berberak al dira? Nork egiten ditu gehiagotan jarduera horiek? Emakumeek ala gizonek?
 - Zein dira ordainsaririk txikiena duten jarduerak? Naturari kalte gutxien egiten dioten berberak al dira? Bizitza duina izaten gehien laguntzen duten berberak al dira?
 - Nork egiten ditu gehiagotan jarduera horiek? Emakumeek ala gizonek? Zure ustez, zergatik gertatzen da hori? Zer proposamen duzu aldatzeko?



HAUR HEZKUNTZARAKO JARDUERAK


3.1. Laranja-kaxa

**Barrukoa (balioak)
kanpokoa (fisikoa) baino
garrantzitsuagoa dela
irakastea.**

Materialak: laranjak, haur bakoitzarentzat bat, saski edo kaxa.
Iraupena: saio bat, 30 minutu.
Elkartzeko modua: talde handia.

GARAPENA:

- 1 Haur bakoitzari laranja bana emango zaio, eta hark kontu handiz zehaztu beharko du, ezaugarri bereziren bat duen adi begiratzuz. Gero, eskatuko diegu guztiek fruta saski batean jartzeko. Hurrena, bakoitzak berea bilatuko du; ez dute arazorik izango lortzeko.
- 2 Jarraian, berriz ere kaxan jartzeko eskatuko diegu. Ondoren, laranjak zuritu eta saskian jarriko dituzte berriz. Haur bakoitzak berea hartu beharko du. Baina, oraingoan ezin izango dute! denak berdinak izango baitira. Kontua da irakastea kanpotik bereizten gaituzten desberdintasunak izan ditzakegula, baina gure barnean berdinak garela.





3.2. Genero-rolak ekoaktibitate batean

Txikiekin aztertzea generoei sozialki esleitutako funtzioak eta ekoaktibitate bat eginez lor daitezkeen aldaketak.

Materialak: ekologiarekin zerikusia duten jarduerak egiten dituzten pertsonen irudiak.

Iraupena: saio bat, ordu bat.

Elkartzeko modua: talde handia.

GARAPENA:

- 1 Ekologiarekin zerikusia duen jarduera jakin bat egiten ari diren pertsonen irudi batzuk aurkeztuko ditugu. Haien aurpegiak ezkutatuko ditugu, eta generoa adieraz ditzaketen beste ezaugarri batzuk ere bai. Haurrek deskribatu beharko dute zer lan egiten ari diren, eta haien generoa asmatuko dute.
- 2 Azkenik, irudi osoa erakutsiko diegu, aurpegia erakutsiz. Haurrak gonbidatuko ditugu haien interpretazioei buruz hausnartzera. Egin daitezkeen zeregin guztiei buruz hitz egin dezakegu, horrela, sinesmen itxiak eta estereotipoak ezabatuz.





3.3. Gaia lantzeko ipuinak

Liburuak

Natcha, Mélodie Baschet. Errate Naturae argitaletxea.

El oso polar, Jeni Desmond. Kókinos argitaletxea.





Olivia y las plumas, Susanna Isern eta Esther Gil. Savanna Books argitaletxea.

Amaryllis, Germán Machado eta Anna Aparicio. Thule argitaletxea.

Cuando el hielo se derrite, Rosie. Zahori argitaletxea.

Catalina y los bosques de hormigón, Ana Laura Barros eta David Acera. Cambalache argitaletxea.

Mi misión era acercarme a Miranda, Belén Gopegui. Pedaleo argitaletxea.



Audiolpuinak

El erizo y el globo - Haurrentzako audio-ipuina .
<https://www.youtube.com/watch?v=9SiNFya55Fo>

Rosa Caramelo - Berdintasunaren aldeko haurrentzako ipuinak

<https://www.youtube.com/watch?v=NO3pwZMcV10>





LEHEN HEZKUNTZARAKO JARDUERAK

4.1. Zein planetan bizitzea gustatuko litzaidake?

Materialak: bi irudiak.
Iraupena: saio bat, 30 minutu.
Elkartzeko modua: talde handia.

GARAPENA:

- 1 Irakasleak bi irudi erakutsiko dizkie ikasleei:



A irudia: elementu artifizial eta erakargarri asko, beren kabuz bizitzari eusten ez diotenak (autoak, eraikin handiak, hegazkinak, etab.).



B irudia: bizitzari eusten dioten elementuak dituen lekua (ura, zuhaitzak, loreak, etab.).

- 2 Haur bakoitzak aukeratu beharko du bi irudietatik zeinetan nahiago duen bizi, eta aukera hori egiteko arrazoiak eman beharko ditu. Gero, aukeratutako irudiaren ondoan jarriko du bere argazkia edo izena.
- 3 Guztiek entzungo dituzte gainerakoek emandako arrazoiak, eta, denek arrazoiak azaldu ondoren, aukera izango dute beren izena edo argazkia hautatutako argazkitik bestera aldatzeko.
- 4 Guztien artean gaiaz hitz egin, eta ondorioak ateratzen saiatuko dira.



4.2. Ideia-jasa:

Materialak: arbela, papera eta bolaluma.

Iraupena: 20 minutu.

Elkartzeko modua: talde handia

GARAPENA:

- 1 Gogoeta pixka bat egingo dugu gure inguruaz. Irakasleak egingo dituen galdera batzuei erantzungo diegu:
- 2 Kontzeptuak: **interdependentzia, ekodependentzia.**
 - Zer dugu inguruan?
 - Non bizi gara eta zerk eta nork inguratuta?
 - Gustatzen al zaigu bizi garen lekua?
 - Ba al dago leku horretan gustuko ez dugun zerbait?
 - Zer behar dugu energia edukitzeko?
 - Nondik aterako dugu behar dugun hori?
 - Nork ematen edo errazten digu?
- 3 Lehenik, talde txikitik lan egin daiteke, eta gero, elkarrekin bateratu, edo zuzenean talde osoarekin egin. Erantzunak gidatuko dira oinarritzko bi kontzeptuak (interdependentzia eta ekodependentzia) biltzen dituzten elementuak mahai gainean uzteko.





4.3. Nola iritsi da niregana?

Materialak: papera eta pinturak.


Iraupena: 30 minutu.

Elkartzeko modua: banakakoa.

GARAPENA:

- 1 Aurreko jardueraren hausnarketatik abiatuta, haur bakoitzak energia ematen dion edo bizitzeko behar duen elementu bat aukeratu du (adibidez, esnea, jertsea, ogia...). Ikusiko dugu elementu horrek gugana iritsi arte egin duen bidea. Horretarako, haurrek binetetan marraztuko dute ibilbide hori, elementuaren jatorritik haiengana iritsi artekoa.
- 2 Horrela, ikasleek jakingo dute zein diren objektu, elikagai eta abarrek hasieratik gugana iritsi arte gairatu behar dituzten maila guztiak. Ibilbide horretan sartuta dauden pertsona guztiak ere ikusiko dituzte, eta zein garrantzitsua den egiten den urrats bakoitza. Horretarako beharrezkoak diren naturako elementuak eta pertsonak aipatuko ditugu.

Hautabidea: bineten ordeztu ipuin bat idaztea, antzeztea, kontatzea...





4.4. Bizitza zaintzen dugu

Materialak: edalontzi edo jogurt-poteak, kotoia, haziak eta ura.

Iraupena: 25 minutu.

Elkartzeko modua: banaka, binaka edo talde txikitan.

GARAPENA:

- 1 Zuhaitz-mota desberdinetako haziak landatuko ditugu. Horrela, gure planetari laguntza emateaz gain, hemendik denbora batera, gure landareak asko zaintzen baditugu, ezusteko bat izango dugu, eta biltzea gustatuko zaigu.
- 2 Jarduera honek, haziak landatzeko modu polit eta erraza irakasteaz gain, pentsaraziko digu nola tratatu eta zaindu behar den gure ingurunea (kasu honetan haziak landatu ondoren haziko diren landareak). Gure ingurunea zaintzen badugu, geure burua ere zaintzen ari gara, hasiera batean uste genuena baino gehiago.





4.5. Kontaidazu ipuin bat:

Materialak: papera, arkatzak eta pinturak. Soinu eta musika lasaia. Ipuina.

Iraupena: saio bat.

Elkartzeko modua: banaka, talde osoa.



GARAPENA:

Bi marrazki

(Yayo Herreroren *La vida en el centro. Voces y relatos ecofeministas* liburuko «Dos dibujos» kontakizunean inspiratutako dinamika).

Jarduera honen helburua da hausnartzea nola ikusten dugun geure burua gainerako pertsonetik, izaki bizidunetik eta ingurunearekiko. Izaki indibidual gisa ikusten al dugu geure burua, gainerako izaki bizidunengandik deskonektatuta, edo elkarren mendeko osotasun baten parte gisa?

- 1 Taldea biribilean eserita dagoela, irakasleak neurri bereko paper-zati zuri bat banatuko die parte-hartzaileei. Jarraibide bakarra emango die: «marraztu zeure burua». 3 minutu emango die bakoitzak bere buruaren marrazkia paperean egin dezan, atzealdean musika leuna jarrita. Gero, eskatuko die zenbait minutuz aretotik paseatzeko, beren marrazkiak erakutsiz eta gainerakoen marrazkiei begira, isilik. Berriz esertzen direnean, beste jarraibide bat emango die: «osatu egin duzuen marrazkia, zuen bizitzari eusten dioten elementuak sartuz» (xehetasun eta informazio gehiagorik eman gabe, kontzeptu hori askatasunez interpreta dezaten). 3 minutu gehiago izango dituzte, nahi izanez gero, marrazkiak osatzeko. Azkenean, aretoko ibilaldia errepikatzeko esango die, beren marrazkiak erakutsi eta besteenak behatu ahal izateko.
- 2 Lehenengo ariketa amaitu ondoren, pertsona batzuei eskatuko die beren marrazkia deskribatzeko eta prozesuan izandako gogoetak besteekin bateratzeko. Hona hemen eztabaida bideratzeko zenbait galdera:
 - Zer ñabardura aurkitu duzue lehen eta bigarren jarraibidearen artean?
 - Marrazkiak asko aldatu al dituzue lehen alditik bigarrenera? Zer sartu duzue?



ESKOLA EKO-FEMINISTA ERAIKI DEZAGUN!

- Orain uste duzue zuen marrazkiek zerbait dutela sobran daudela edo zerbait falta zaiela? Zergatik? Bi marrazkietatik, zein egokitzen zaio gehien errealitateari?
- Zuen ustez, planetako beste leku batzuetan zuen adin bereko beste pertsona batzuek marrazki-mota bera egingo lukete? Zer desberdintasun egon liteke? Zergatik?
- Zer alde dago izatearen eta edukitzearen artean? Geure burua definitzen dugunean, zeri ematen diogu garrantzia, garen horri edo daukagun horri? Zer eragin du horrek gure bizitzan eta beste pertsona batzuekin eta ingurunearekin harremanak izateko moduan?

- 3 Amaitzeko, irakasleak «Bi marrazki» ipuina irakurriko du edo taldeko baten bati eskatuko dio irakurtzeko.

BI MARRAZKI

Pintatu zeure burua, esaten diote bost urteko neskatoari.

Eta orriaren erdian marrazten du. Bi begi, ahoa, lepotik irteten den gorputza. Bi beso, bi hanka. Sudurra ahaztu zaio.

Pintatu zeure burua, esaten diote bost urteko neskatoari.

Eta aurpegi asko marrazten ditu paperetik banatuta. Aurpegien inguruan zuhaitz berdeak. Zizare bat. Txori bat.

Hiriko neskatoak dio: ni naiz hau.

Neska indigenak dio: ni hor marraztuta nago.

Munduaren zati bat izaki indibidual gisa marrazten da, gainerako izaki bizidunetatik deskonektatuta. Munduaren beste zati bat bere kosmobisiotik marrazten da, bere gorputzean amaitzen eta hasten ez den zerbaiten zati gisa.

Garen horretatik marrazten da, beste gizaki batzuekin batera, naturari loturik. Ez da harritzekoa batzuek sufritzea zuhaitz moztuarekin, espezie iraungiarekin, eta beste batzuek, berriz, ezer sentitu gabe moztea eta espezieak akabatzea.



4.6. Amaitzeko

Ubuntu kontzeptua aurkeztuko dugu eta gogoeta egingo dugu horri buruz.

UBUNTU

UBUNTU afrikar jatorrizko filosofia da. Honetan datza: Ni naiz, gu garelako. Horri esker, kolektibotzat hartzen dute gizartea, eta familia handi baten zati sentitzen dira. Naturaren zati gara, beraz, natura suntsituz gero, geu ere suntsituko gara. Filosofia horren arabera, naturaren edo osotasun baten zati ikusten dugu geure burua. Horrek herri eta komunitate askori lagundu die bidegabeko egoerei eta zapalkuntzei historiako hainbat garaitan aurre egiten.



BIGARREN HEZKUNTZARAKO ETA BATXILERGORAKO JARDUERAK

5.1. Interdependentziari buruzko hausnarketak

Materialak: arbela, papera eta bolaluma.

Iraupena: saio bat.

Elkartzeko modua: banaka, talde txikietan eta talde handian..

GARAPENA:

- 1 Bideo honen proiektzioa: «DV8 Physical Theater The cost of living».



https://www.youtube.com/watch?v=QgUT0Ufmbk&list=PL92bRaAeeSVI8Bu_kSY5BAME7d4y-SO_N&index=2&ab_channel=compartiresestimar




- 2 Ikasle bakoitzak denbora pixka bat emango du bere ustez ikusitakoak zer irudikatzen duen esaldi pare batean idazten. Gero, binaka jarri eta hausnarketa bateratuko dute. Ondoren, eskatuko diegu zerrendatu dezaten esnatzen direnetik oheratu arte egunean zenbat gauza, pertsona eta ekintza behar dituzten.
- 3 Ikasleak 4 laguneko taldetan bilduko dira eta ordura arte egindakoa bateratuko dute. Gero, irakasleak bi galdera hauek idatziko ditu arbelean, ikasleek taldean erantzun ditzaten.
 - Zer da ekomendekotasuna?
 - Zer da interdependentzia?
 - Zer ezin dugu bakarrik egin, baina elkarrekin bai?
 - Ba al dago mendekoa ez den gizakirik?
 - Zein dira bizitzeko funtsezko lanak eta nork egiten ditu?



- 4 Gela osoak erantzunak bateratuko ditu, eta, ondoren, irakasleak definizio hau irakurriko du.

EKOMENDE-TASUNA naturaren eta gizakiaren artean dagoen mendekotasun-harremana da, non biak dauden bestearen ekintzek baldintzatuta. Adibidez, giza ekintzak kutsatzen badu, klima-aldaketaren ondorioak jasango ditugu. Interdependentziak, bestalde, gizakien artean dagoen harremanari egiten dio erreferentzia, batzuek besteak behar baititugu, batetik, gure biziraupenerako eta, bestetik, elkarrekin bizitzeko. Eko-mendekoak gara, naturaren mende gaudelako eta interdependentek gara gainerako pertsonen mende gaudelako. Edozein modutan eta edozein sistema politiko eta ekonomikotan, natura eta gainerako pertsonak behar ditugu gure bizitzarako.





5.2. Klima-aldaketaren aurkako aktibismoari buruzko gogoetak

GARAPENA:

- 1 Bideo hau proiektatzea: «Bi aktibista protestan Pradoko museoan».



<https://www.youtube.com/watch?v=00FQHGF-VVI>



- 2 Ikasle bakoitzak denbora pixka bat emango du bere ustez ikusitakoak zer irudikatzen duen esaldi pare batean idazten. Gero, binaka jarri eta hausnarketa bateratuko dute. Ondoren, eskatuko diegu zerrendatzeko mota horretako ekintzek gizartean duten eragin positiboa eta negatiboa.
- 3 Ikasleak 4 laguneko taldetan bilduko dira eta ordura arte egindakoa bateratuko dute. Gero, irakasleak galdera hauetako batzuk idatziko ditu arbelean, ikasleek taldean erantzun ditzaten:
 - Ondo iruditzen al zaizkizue klima-ekintzaileen borroka-moduak?
 - Zein da erabiltzen ditugun teknologien motxila ekologikoa? (ordenagailua, tableta, igogailua, gimnasioa, prentsa Interneten irakurtzea, sare sozialak erabiltzea...).
 - Zer egin dezakegu klima-aldaketaren aurka borrokatzeko?
 - Zer da aztarna ekologikoa?
- 4 Gela osoak erantzunak bateratuko ditu, eta, ondoren, irakasleak definizio hau irakurriko du.

AZTARNA EKOLOGIKOA: Aztarna ekologikoa iraunkortasun-adierazle bat da, gure bizimoduak naturan duen eragina neurtzeko. Adibidez, ez du eragin bera lanera joateko autoa edo bizikleta erabiltzeak, ezta bertako produktuak (0 km) eta produktu ekologikoak jateak edo inportaziokoak aukeratzeak ere, hau da, gure bizimoduak lurra zaintzeko dugun modua ere definitzen du.



Ebaluazioa

Kartelarekin egingo dugun lehenengo jarduera ikasleek ekofeminismoarekiko duten ezagutza eta sentsibiltatea ebaluatzeko erabiliko da. Horrela, gehien landu beharreko alderdiak zein diren zehaztu ahal izango dugu.

Unitatea garatzen dugun bitartean, ebaluatuko dugu ikasleek eztabaidetan, informazioaren bilaketan eta materialaren lanketan duten parte-hartzea, behaketa sistematiko baten bidez.

Unitatea amaitutakoan, ikasleen banakako eta taldeko lana baloratuko dugu, ezarritako irizpideen arabera.

Halaber, jarduera bakoitzaren amaieran, hau ebaluatuko da: zerk funtzionatu duen eta zerk ez, nola antolatu den gela, denbora aski izan den, ikasleen motibazioa, taldea eta abar. Hori guztia prozesua eta unitatearen garapena egokitzeke erabiliko dugu.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

- Badakite zer den ekofeminismoa.
- Badakite nola eralda daitekeen sistema aberastasuna hobeto banatzeko.
- Badakite naturari, haziei, laboreei buruz.
- Badakite zainketei buruz, bizitzaren sostenguari buruz.

EBALUAZIO-TEKNIKAK

- Behaketa, argazkiak, landutako materiala.



EBALUAZIO-TRESNAK

- Irakaslearen eguneroko jarraipena.
- Egindako lanak.
- Fotografia.

IKASLEEN EBALUAZIOA

- Zer gustatu zaien gehien eta zer gutxien.
- Zer ikasi duten eta zertaz ohartu diren.
- Zerk harritu dituen gehien.
- Zer aldatuko luketen prozesuan.



BALIABIDEAK



1. eranskina

Maleta pedagogikoaren txartelak (27. orritik 42.era); esteka honetan daude:

https://cerai.org/wordpress/wp-content/uploads/2021/09/maleta-pedagogica-ecofeminista-sostenibilitat-al-plat-cerai_compressed.pdf



EUSKARAZKO TXARTELAK
DOKUMENTU
HONEN 31. ORRIALDETIK
AURRERA DAUDE.

APARTEKO MATERIALA

I. EKOFEMINISMOA

- Zer dakigu ekofeminismoaz?
- Nork sortu zuen ekofeminismoa?
- Ezagutzen al duzue ekofeminismoaren alde lan egin duen emakumeren bat?
- Nola hobetu dezakegu gure ingurune hurbila?
- Eta nola hobetu dezakegu bizi garen lekua, hau da, lurra?
- Nor dugu inguruan? Zertan aritzen da?
- Nor arduratzen da gure ingurunea eta beharra duten gure familiako pertsonak zaintzeaz?
- Nork sortu zuen ekofeminismo hitza?



II. BILA DITZAGUN EKO-FEMINISTAK ETA AITOR DEZAGUN DUTEN GARRANTZIA:

- Ekofeminismoaren alde borrokatu diren eta borrokan jarraitzen duten emakumeak bilatuko ditugu. Hitz egin dezagun gizartean izan duten garrantziaz.

Hona hemen sistema kapitalista heteropatriarkala aldatzeko borrokan sartuta egon diren emakume batzuk:



Wangari Maathai
(Kenia, 1940-2011)

Feminista zen, eta bakearen Nobel Saria eman zioten, bere bizitza osoan garapen jasangarriaren alde borrokatu zelako. Sari hori jaso zuen lehen afrikar emakumea izan zen.

Berta Isabel Cáceres Flores
(Honduras, 1971-2016)

Aktibista izan zen, eta herri indigenen eskubideak defendatzeko borroka egin zuen Hondurasen.



Françoise d'Eaubonne
(Paris, 1920-2005)

Ekofeminismo terminoaren sortzailea da. Françoise d'Eaubonnek auzitan jarri zuen gizarte kapitalistetako eta bloke sozialistako garapena naturaren eta emakumeen esplotazioan oinarritzea.



Aura Lolita Chávez Ixcaquic
(Guatemala, 1972)

Lider indigena da, eta Lolita esaten diote. Aktibista da, eta emakumeen eskubideak defendatzen ditu. Horrez gain, nazioarteko erreferentia da baliabide naturalak babesteko borrokan.



III. ZAINTEA BESTE KONTU BAT DA:

- «Zaintzea beste kontu bat da» karta-jokoa da. Gida didaktikoa, 30 kartako jokoa eta «Karta bakoitzak bere historia du» izeneko eranskina du, eta haren helburu nagusia da zainketen gaineko kontzientzia pertsonala eta herritarra indartzea, erantzukidetasuna sustatuz, eta genero-desberdintasuna sortzen duen eredu kapitalista patriarkala zalantzan jarriz.

Esteka hauetan daude gida didaktikoa, kartak eta eranskina:

Gida didaktikoa:

https://www.intered.org/sites/default/files/guia_didactica_cuidar_es_otra_historia.pdf


Kartak:

https://www.intered.org/sites/default/files/cartas_cuidar_es_otra_historia.pdf

Kartak ipuin eta azalpenarekin:

https://www.intered.org/sites/default/files/anexo_cada_carta_tiene_su_historia.pdf

JOLASTU ETA DIBERTITUKO GARA, GAI GARRANTZITSU HONETAZ KONTZIENTZIA HARTZEN DUGUN BITARTEAN!





IPUINAK- LIBURUAK

Bizitza erdigunean jartzearen garrantziaz, zaintzaz, beste gizakiekin (gizakiak izan ala ez) eta planetarekin dugun harremanaz hitz egiten duten liburuak. Klima-aldaketa zer den azaltzeko, kontzientzia ekologikoa sortzeko edo naturarekiko maitasuna sustatzeko balio dutenak.



Liburuak

Otsoaren ipuina, Veronique Caplain eta Gregoire Mabire. Tarttalo argitaletxea.

Natcha, Mélodie Baschet. Errate Naturae argitaletxea.

El oso polar, Jeni Desmond. Kókinos argitaletxea.

Olivia y las plumas, Susanna Isern eta Esther Gil. Savanna Books argitaletxea.

Amaryllis, Germán Machado eta Anna Aparicio. Thule argitaletxea.

Cuando el hielo se derrite, Rosie. Zahori argitaletxea.

Catalina y los bosques de hormigón, Ana Laura Barros eta David Acera. Cambalache argitaletxea.

Mi misión era acercarme a Miranda, Belén Gopegui. Pedaleo argitaletxea.

Wangari y los árboles de la paz, Jeanette Winter.

El jardín curioso, Peter Brown.

Plantar árboles, sembrar ideas, Wangari Maathai.





Audiolpuinak

El erizo y el globo - Haurrentzako audio-ipuina.
<https://www.youtube.com/watch?v=9SiNFya55Fo>

Rosa Caramelo - Berdintasunaren aldeko haurrentzako ipuinak.
<https://www.youtube.com/watch?v=NO3pwZMcV10>






Babesleak

Babesleak emakumeen egiletza kolektibo baten ipuina da. Ipuin irudidunak natura, gure planeta, babesteko beraien gorputza jartzen duten emakumeen lana ikustarazi nahi du. Naturaren balioa eta bera babesteko dugun erantzukizuna gogorarazten digu. Ipuin bat baino askoz gehiago da. Adimenak eraldatzeko eta bihotzak sentsibilizatzeko tresna bat da. Honen bitartez, amesten dugun beste mundu posible baten eraikuntzan pertsona gehiago nahasi nahi ditugu; emakumeak eta herriak askeak izateaz gain, gure bizitzak sostengatzen dituen natura zaintzen dugun mundua hain zuzen.



1. eranskina



**3 HILABETEKO
HAUR BAT ZAINTEA**



**LURSAIL EDO BASERRI TXIKI
BATEKO NEKAZARIA IZATEA**



**ADINEKO
PERTSONA BAT
ZAINTEA**



**TXERRI-USTIATEGI
INTENTSIBO BATEKO
ENPRESARIA
IZATEA**



**ARMAGILEA
IZATEA**



**JANARIA
PRESTATZEA**



**PESTIZIDAK
FABRIKATZEA**



**HAZI-ENPRESA BATEAN
ZUZENDARI
NAGUSIA
IZATEA**



**NORBAIT TRISTE DAGOENEAN
KONTSOLATZEA**



**3 HILABETEKO
HAUR BAT ZAINZEA**



**HURRENGO EREIARORAKO
HAZIAK HAUTATZEA**



**ADINEKO
PERTSONA BAT
ZAINZEA**



**LURSAIL EDO BASERRI TXIKI
BATEKO NEKAZARIA IZATEA**



**ARMAGILEA
IZATEA**



**TXERRI-USTIATEGI
INTENTSIBO BATEKO
ENPRESARIA
IZATEA**



**PESTIZIDAK
FABRIKATZEA**



**JANARIA
PRESTATZEA**



**NORBAIT TRISTE DAGOENEAN
KONTSOLATZEA**



**HAZI-ENPRESA BATEAN
ZUZENDARI
NAGUSIA
IZATEA**



**HURRENGO EREIARORAKO
HAZIAK HAUTATZEA**



**3 HILABETEKO
HAUR BAT ZAINZEA**



**LURSAIL EDO BASERRI TXIKI
BATEKO NEKAZARIA IZATEA**



**ADINEKO
PERTSONA BAT
ZAINZEA**



**TXERRI-USTIATEGI
INTENTSIBO BATEKO
ENPRESARIA
IZATEA**



**ARMAGILEA
IZATEA**



**JANARIA
PRESTATZEA**



**PESTIZIDAK
FABRIKATZEA**



**HAZI-ENPRESA BATEAN
ZUZENDARI
NAGUSIA
IZATEA**



**NORBAIT TRISTE DAGOENEAN
KONTSOLATZEA**



BIZITZA DUINAGOA

**DUINTASUN
GUTXIAGOKO BIZITZA**

**GEHIEN
ORDAINDUTAKO JARDUERAK**

**GUTXIAGO
ORDAINDUTAKO JARDUERAK**

**NATURA GEHIEN KALTETZEN
DUTEN JARDUERAK**

**NATURA GUTXIEN KALTETZEN
DUTEN JARDUERAK**

**HURRENGO EREIARORAKO
HAZIAK HAUTATZEA**



 **idazkaritza
feminista**


steilas
www.steilas.eu

**ESKOLA
EKO-FEMINISTA
ERAIKI DEZAGUN!**

